



EBAZPENA, 2020ko ekainaren 25ekoa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, oposizio-fasean izangaiek lortutako kalifikazio orokorrak argitara ematen dira (Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan) eta merezimenduak entregatzeko epea irekitzen da

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez (EHAA, 2019ko azaroaren 26koa), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegora sartzeko lehiaketa-oposiziorako deia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 6.6.2 oinarriaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, oposizio-fasean izangaiek lortutako kalifikazio orokorrak argitara ematen dira, probaren zati guztiak gainditu ondoren. Era berean, 7. oinarriarekin bat etorriz, oposizio-fasea gainditu duten izangaiek merezimenduak aurkezteko epea irekiko da.

Horrenbestez,

EBATZI DUT

Lehena.- Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegora sartzeko deitutako lehiaketa-oposizioan, oposizio-aldian izangaiek lortutako kalifikazio orokorrak (lehiaketa-oposizioa Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitu zen).

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila> eta www.irakasle.eus (sartu erabiltzailea eta pasahitza).

Oposizio-faseko kalifikazio orokorren zerrenda www.irakasle.eus webgunean argitaratuko da (sartu erabiltzailea eta pasahitza) – 2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza - Hautaketa-prozesuaren jarraipena (hautatu kidegora) – Emaitzak – Oposizioko nota – Alfabetikoki / Puntuz.

Hirugarrena.- Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamar egun balioduneko epea irekitzea, oposizio-fasea gainditu duten izangaiek deialdiaren I. eranskinean ageri den baremoan adierazten diren egiaztagirak aurkez ditzaten, lehiaketa-fasean baloratzeko.

Salbuespenezko egoera kontuan hartuta, eta osasun-segurtasuna bermatzeko ezohiko neurriak hartu behar direnez, hala nola urruntze soziala lortzeari buruzkoak, pertsonak elkartzea edo haien arteko hurbiltasuna eragiten duten jarduerak saihestuz, dokumentazioa honela aurkeztuko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko karrerako funtzionarioen kasuan, <https://irakaslegunea.euskadi.eus/> helbide elektronikoaren bidez (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, halakorik badago) – "LEP IKUSKARITZA: merezimenduak entregatzeko sarbidea". Atal horretan sartzean erakutsiko den formularioa bete beharko da, dagokion dokumentazioa erantsi eta "Bidali" atalean klik egin.



- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden karrerako funtzionarioen kasuan, Erregistro elektronikoro korren bidez ([EEO](#)) edo posta-bulego baten bidez egin ahal izango da (gutun-azal irekian, ziurtatu aurretik posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara zuzenduta (Donostia kalea 1, -01010 Vitoria-Gasteiz).

Argitalpenak aurkezten badira, jatorrizko alearen orde, azalaren kopia eta argitalpenaren lehen 3 orrialdeak emango dira, ISBNren datuak jasotzen dituen orrialdeaz gain. Beharrezkoa izanez gero, argitalpena geroago entregatzeko eskatuko da.

Laugarrena.- Ezin izango da errekurtsorik jarri ebazpen honen kontra eta horretan interesatuta dauden pertsonen deialdiaren 9. oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren kontra jarri beharko dute errekurtsua.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 25ean

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA